

Martutenetik gramatikaren lurraldera joan-etorria

Patxi Goenaga

Euskaltzaindia

Laburpena

Lan honetan, Saizarbitoriaren azken nobelaren irakurketatik abiatu, eta darabilen hizkeraz zenbait gogoeta egiten da, bereziki osagai ordenari buruzkoak. Irakurketaren zailtasunaren gakoetako bat hitz hurrenkeran eta darabilen puntuazioan datzala erakusten da lehenbizi. Euskal literaturak eta gramatikak nahitaez izan behar duten elkartasunaz gogoeta egiten da ondoren. Idazleak eta irakurleak gramatikaren beharra du eta honek idazle-irakurleena. Azkenean, gogoeta bat egiten da gure literatur lanen itzulpenen haritik.

1. Saizarbitoriaren Martutene

Bospasei egun behar omen dira, horretara jarrita, Saizarbitoriaren (2012) azken nobela irakurtzeko. Hala zioen Joxean Agirrek *Garan* (2012-04-15). Honako hau ere bazioen: «Eta esperientzia hain da bortitza, hain gora eramaten du irakurlea tarteka, non zorabio puntu batekin hartu behar baitu gero lurra». Nik ere zorabio puntu bat sentitu nuen, baina astebete baino gehiago behar izan nuen dena irakurtzeko. Beharbada, ez nintzen erabat 'horretara jarri'. Baina batari eta besteari galdetzen nien *Martutenez*, eta batzuek, literatur kritiko entzutetsuren bat barne, oso ona zela. Aurkitu nuen bertan behera utzi zuela aitortzen zidanik ere. Eta irakurtzeko trabarik izan ote zuten galdetu eta batzuek ezetz erantzuten zidatenenean, nire miresmena areagotu egiten zen. Gauzak horrela, arazoa neu izan nintekeela ere pentsatu nuen. Adinaren kontuak, beharbada. Holako burutazioak izaten nituen nobela eskuartean nuen bakoitzean. Ez nengoen, hala ere, prest liburua apalean utzi eta beste zerbaiti ekiteko. Amaitu nahi nuen kostala ala kostala, buru-estimua hutsez baldin bazen ere. Batzuetan abaila hartzen nuen eta dena ondo zihoala uste nuenean, sorzen zitzaidan oztoporen bat, berriz ere testuan atzera egin, eta irakurri berritu nuena bigarren aldiz irakurtzera behartzen ninduen. Horrela ibili nintzen testuan zehar, gora eta behera. Metodo eskasa liburuaz gozatzeko, nire asmoa hori bazen ere. Testuak bazuen zerbait, traba egiten zidana, lehen kapituluetan batez ere. Eta hasieran bertan liburu mardula zail egiten bazaizu, albora

uzteko tentaldia izugarria izan daiteke. Zorionez, Saizarbitoriaren aurreko lanen oroitzapen gozoa gordetzen nuen eta, horri esker, tentaldiak uxatu eta liburua amaitu nuen. Pixka bat sufriaraziarren, ederra. Nobela handia, eta ez bakarrik orrialde kopuruz. Gusturago ibili nintzen, hala ere, *Hamaika pauso* nobela bikainean, adibidez.

Baina zer du *Martutenek*, ni bezalako irakurle soil bati hainbesteko traba sortzeko? Zerk egiten du hain irakurgaitz hainbat pasartetan, beste askotan arazorik gabe doan testua?

Egileak berak ematen digu arrastoren bat. Solasaldi batean (*Argia*, 2012-09-02), esaterako, kazetariak elkarrizketa gehienak zehar estiloan eman dituela gogorarazten dio. Zuzeneko elkarrizketak ‘jendeak maite dituela iruditzen zait, baina nik ez’ dio. Irakurleari asko laguntzen diola jakin arren, oso artifiziala iruditzen zaiola, dialogo bat gutxitan jaso baitaiteke ondo, modu zuzenean.

Bi kontu iradokitzen ditu erantzun honek: batetik, estiloak, hizkuntzak, eta, beraz, gramatikak, biziki arduratzen duela egilea, eta bestetik, testua zailagoa gertatuta ere, idazleak bere gustuak badituela eta askatasun osoz idazten saiatu nahi duela.

Beste elkarrizketa batean ere (*Administrazioa euskaraz*, 2012-uztaila), Miel Angel Elustondok aipatzen dizkio osatzen dituen esaldi luzeak: hasi esaldia, «eta ezin punturik jarri, dozena erdi ilara beherago ez bada. Esaldia hasi, koma, perpausa, koma, segi, koma, «zeinetan» bat hemen, eta, halakoren batean puntua!». Erantzuna, kosta egiten zaiola puntua jartzea, ez dakiela zergatik, oso berea dela hori, ezin duela horren kontra borrokatu, horrek irakurketa zaildu egiten badu ere. Eta honela borobiltzen du esaldia: «Hizkuntzalari batek, lexikologoak beharbada, nik idatzi dudana irakurri eta esango luke zer edo zer».

Bestalde, elkarrizketa berean aitortzen du hamar urte lanean jardun ondoren, azkenerrako, aspertu ere egin zela. Baina atera da, «akats askorekin atera ere» dio. Ez digu esaten zein. Ez zuela hain azkar atera behar, baina beste urte bat joango ote zitzaion beldur zela.

2. Hitz ordena eta perpaus osagarriak zehar estiloan: muga arazoak

Puntua jartzea kostatzen omen zaio. Komak ere, hola-hola dabiltzala esango nuke, irakurleari, ondo jarritako koma batek falta den batek baino gehiago laguntzen dion arren. Esaldien (edo perpaus lokabeen) arteko mugak bereizten dituen puntua baldin bada, Garziak (2014a) dioen bezala, nobela honetan sei-zortzi lerroko perpaus lokabeak aurkitzea ez da zaila. Baina, horrela, perpaus bakoitzaren osagaiak nola josiak dauden asmatzea ere ez da erraza gertatzen, hurrenkera eta puntuazio sistema ongi zaindu ezean. Eta holako kasuak badira testuan, eta ez gutxi. Estilo zuzena ahozko jardunaren ezaugarritzat eman ohi da (Makazaga 2008: 548), eta

hau argiago eta ulerterrazago izanik ere, zehar estiloaren hautua egin du idazleak. Eta ondorioz, esaldi korapilatuegiak eskaintzen zaizkigu, mataza nahasiak, askatzen zailak. Gaiaren arabera, testu bat oso konplexua izan daiteke, baina trinkotu beharren beharraz, korapilo askagaitzak osatzea, liburuaren hasiera-hasieran, 21. orrialdean, gertatzen den bezala, adibide bat jartzearen, ez da oso gomendagarria. Azkenean atera ezinean gera daiteke irakurlea, gurdia lokatza artean bezala. Eta ni, irakurle soil hau, testuan tratatua aurkitu naiz behin baino gehiagotan. Eta susmoa dut hitz hurrenkeran tratatu naizela, hau izan dela irakurketa hain aldatz gora egin didana. Eta hurrenkerarekin batera, maiz, puntuazio markak, esaldiaren bide seinale modura lan egin behar luketenak, edo falta dira edo ez daude egoki jarriak.

Euskararen hitz ordenaz mintzatzean, galdegaiaz eta mintzagaiaz hitz egin da batez ere (Altube 1929; Mitxelena 1978, 1981; Hidalgo 2002 ...) Oraingoan, *aita batek bi seme zituen/aita batek zituen bi seme* moduko aukerez ez gara ariko, zehar estiloaren ikur izan daitezkeen perpaus osagarriez baizik.

Perpaus osagarriak, gainerako objektuak bezala, aditz gobernatzailearen ezkerretara nahiz eskuinetara koka daitezke:

- (1) a. $[_{P_0} \dots [_{P_{osagarria}} X Y Z \underline{\text{aditza} + \text{-(E)LA}}] \underline{\text{aditz nagusia}} \dots]$
 b. $[_{P_0} \dots \underline{\text{aditz nagusia}} [_{P_{osagarria}} X Y Z \underline{\text{aditza} + \text{-(E)LA}}]]$

Baina holakoetan, perpaus bakunetan ez bezala, (1b)ko egitura konplexuak dira erabilienak, aditz nagusia ezker aldean dutenak. Altubek ere horixe aitortzen du, gustukoa ez izan arren:¹

Hay que reconocer que tratándose de oraciones con miembro inquirido largo y complejo, aun en el lenguaje hablado se infringe con frecuencia la regla establecida cuando el verbo de la oración expresa ideas tales como decir, contestar, etc.; así es muy frecuente oír frases como las siguientes:

a) Amak esan dit «biyar lan asko daukala eta ezin etorri al izango dala».

(...) La construcción correcta, aunque no la más usual, sería (...) como sigue:

a_a) «Biyar lan asko daukala ta ezin etorri izango dala» esan dit amak.
 (Altube 1929: 11)

Eta (1b)koak badira erabilienak, pentsatzekoa da prozesatzen errazena direlako dela, Altube gorabehera (ik. Fernández & Ortiz de Urbina 2007: 249

¹ Beatriz Fernándezek ohar batean gogorarazten didanez, SOV hizkuntzatzat jotzen ditugun askotan astunak diren osagaiak (eta perpaus osagarriak astunak izateko jaiok dira) eskumatara lerratzen dira. Ez da euskararen bitxikeria bat, hortaz.

eta hurr.). Adibidez, perpaus osagarriak bata bestearen barnean behin eta berri-
 rriz eskuinaldean txerta daitezke debeku handiegirik gabe. Zehar estilorako
 oso egokiak:

- (2) [₀ Plan aldaketari buruz jakinarazi dio [₁ Urrutikoetxeak deitu duela
 [₂ jakinarazteko [₃ prest dagoela [₄ laguntza bidezko ugalketari bu-
 rurzko programaz hitz egiteko]]]]]]... (M 595)

Dena dela, (1a)ko hurrenkeraren araberakoak ere badira nobelan, eta ez
 gutxi:

- (3) [₀ [₁ [₂ Lynn guztiak sorginak direla] pentsatuko duela] esan du]. (M 160)

(1a)ko eta (3)ko hurrenkera honetan, ordea, bi kasu bereizi beharko ge-
 nituzke: perpaus osagarriko adizkia perpausaren azkenean ematen denekoa,
 perpausaren muga bertan, (4a), eta adizki hori gainerako osagaien artean
 tartekatua ageri denekoa, (4b). Perpaus osagarriaren barne-hurrenkera per-
 paus bakunetan duguna bezalakoxea, hortaz:

- (4) a. [_{P0}... [_{P osagarria} X - Y - Z + adizkia -(E)LA/-(E)N] adizki nagus-
 sia...] (= (1a))
 b. ?[_{P0}... [_{P osagarria} X + adizkia -(E)LA/-(E)N + - Y - Z] adizki na-
 gusia...]

Adibidez:

- (5) a. [Lurrez, itsasoz eta airez ederki komunikatuak daudela] esan du
 Martinek.
 b. ?[ederki komunikatuak daudela lurrez, itsasoz eta airez] esan du
 Martinek.

Hurrenkera bata edo bestea hautatzeak, ordea, ondorioak ditu: (5a) ego-
 kitzat jo dugu, idatzian ere. (5b) baino egokiagoztat behintzat bai. Azken ho-
 nek, izan ere, perpausen arteko muga ez dauka behar bezala zehaztua. Hala
 ere, adibide hau ia bere horretan ageri da gure nobelan:

- (5') Ederki komunikatuak daudela lurrez, itsasoz eta airez ia esan du ...
 (M 22)

Hemen, gainera, 'ia' hori ez dakigu perpaus nagusiko osagai den ala per-
 paus osagarrikoa. Itzulpenak argitzen du ez dela perpaus nagusikoa: «*Esta-
 mos comunicados prácticamente por tierra, mar y aire, ha dicho...*». Garbi
 dago, hortaz, muga arazo hori zein den.

Perpausen arteko mugak markatu behar badira, ez da komeni perpaus osagarriko osagaiak perpaus txertatuko adizkiak harago eramatea. Holakoak, hala ere, ahozkoan maiz gertatzen dira, eta gure nobelan ere bai.

Ezezko osagarrietan ere arazoak izan daitezke, ezeztapenaren eraginez adizki jokatua ezkerrean eta partizipioa eskuinaldean uzten badugu. Perpausaren muga, berez, -(E)LA menderagailuak ezartzen baitu:

- (6) a. Ez duela trabarik egiten erantzun dio. (M 112)
 b. Erantzun dio ez duela trabarik egiten.

Biak ohikoak dira, honako hau baino ohikoagoak, nolana ere:

- (7) Trabarik egiten ez duela erantzun dio.

Baina perpaus osagarria zenbat eta txertatuago egon, (7)ko hurrenkera ere izan dezakegu, (8)n erakusten den bezala:

- (8) [[Trabarik egiten ez duela] erantzun dion] neska... / b. ?[[Trabarik ez duela egiten] erantzun dion] neska...

Nolana ere, perpaus osagarrietan askatasun handia du hiztunak, erlatiboetan ez bezalakoa: *trabarik ez duen egiten neska vs. trabarik egiten ez duen neska. Baldintzazkoetan ere askatasuna dago bietara jokatzeko: *trabarik egiten ez badu*, *trabarik ez badu egiten*. Nolanahi ere, ezezkako perpausak gorabehera, perpaus txertatuetan aditza azkenerako uzteko joera ikusten da maiz. (ik. Alberdi & Sarasola 2001: 40-43)

Hala ere, ahozko hizkeran onargarriztat eman ohi dira holakoak, adizkia azkenerako utzi ez arren. Perpaus osagarriaren eta nagusiaren artean eten bat egiten da eta eten hori berori da muga markatzailea. Betiko kontua, alegia: entonazioa dela bide, ahozkoan egin daitezkeen eta egiten diren bereizketak islatzea zailago gertatzen da idatzian. Adibidez, honako perpaus hau zuzena da baldin eta muga markatzeko bidea ematen badu.

- (9) Klasikoak balio segurua direla eta horregatik nahiago dituela berak ere / esan du.

(9)ko adibidean marra bidez irudikatu dugu eten hori. Idatzian markatzea zailago da, koma bidez edo ez bada. Horixe da nobelan egiten dena, hain zuzen:

- (9') Klasikoak balio segurua direla eta horregatik nahiago dituela berak ere, esan du berriro gaztelania erabiliz. (M 104)

Nolana ere, holako esamoldeek zarata sor dezakete. Esaterako, (9')ko *berak ere* osagaia, komarik ezean, izan zitezkeen perpaus nagusiko osagai ere:

berak ere esan du, alegia. Koma lagun harturik gaindi daiteke oztopoa. Eta, bide batez, *berak ere* sintagmak, koma eta guzti tartekatuta, etena islatua uzten du. Beste batzuetan, ordea, ez da holakorik gertatzen.² Nobelan holakoak komarik gabe maiz agertzen dira.³ Adibidez:

- (10) a. Lynni halaxe aitortu diola oraindik orain erantzun du. (M 580)
 b. Gaztelaniaz esan dio oraingoan, besteak kontsulta baino atseginago zaiola ebakuntzagela aitortzen dionean (M 59)
 c. Eta berak ere hobe lukeela hainbeste gozo jatetik abstenituko balitz esan dio Kepari. (M 267)

Baina holakoetan koma jartzearen kontrakoak ere badira.⁴ Hobe, omen, hitz ordena aldatzea. Izan ere, aditz nagusia ezkerrean emanez gero, adibidez, ez legoke inolako problemarik. (10)eko adibideak askoz garbiagoak lirateke beste hurrenkera batean. Hots:

- (10') a. Erantzun du halaxe aitortu diola Lynni oraindik orain.
 b. Gaztelaniaz esan dio oraingoan, besteak aitortzen dionean kontsulta baino atseginago zaiola ebakuntzagela.
 c. Eta Kepari esan dio berak ere hobe lukeela hainbeste gozo jatetik abstenituko balitz.

Kontua arretaz aztertzekoa da, baina hurrenkera batzuek ulergarritasunaren alde egiten dute eta beste batzuk, berriz, oztopo izan daitezke. Gramatikaltasunaz edo gramatikaltasun ezaz hitz egitea agian asko da, baina argi dago formula batzuk besteak baino egokiagoak direla. Izan ere, gramatikaz harago, hurrenkera batzuk beste batzuk baino errazago prozesatzen dira. Argi dago, halaber, formula batzuek ahozkoan arazorik ez dutela, baina ez direla idatzira zeharo egokitzen bere horretan. Perpaus osagarriak zehar estiloko zerbaite dira, noski. Beraz, zehar estiloaz baliatu nahi izanez gero, eta hurrenkera bat baino gehiago badira eta horietako batek debeku handiagoak ezartzen baditu, idazleak kontuan hartu beharko ditu debekuok.

Eta perpaus osagarriez eta muga arazoez ari garelarik, ezin utzi aipatu gabe *ezen* lokailua. Gaur zenbaitek, garai bateko gramatikarien debeku guz-

² Ildo beretik, honako ordain hauek ere asma zitezkeen, argiagoak:

(i) Klasikoak balio segurua direla eta horregatik nahiago dituela *berak ere*. Hala / hori esan du berriro gaztelania erabiliz.

³ Honela dio Garziak (1997: 225): «bi perpausen aditzak aski segidan ez badoaz, oso posizio nahasgarrian gertatzen dira bataren zein bestearen tarteko sintagmak».

⁴ Garziak, adibidez, ez du maite sintaxiaren edo hitz hurrenkerearen bidez konpon daitezkeen arazoak koma faltsuz konpontzea (Garzia 1997: 214, 222).

teiei aurre eginez, lokailu honen erabilera aldarrikatzen dute. Ahozko hizkeran ere bizirik dago. *Martutenen* ez da ageri. Hala ere, erosoia izan liteke, ondoren zer perpaus mota datorren iragartzen baitigu eta, horrenbestez, mendeko perpausaren muga non hasten den esaten (Alberdi & Sarasola 2001: 31-32; Garzia 1997: 235; Euskaltzaindia 1999: 62-65):

- (11) Jakin behar duzue ezen, nolakoa den bizitza, halakoa izan ohi dela heriotza.

Baina *ezen* *-(e)la* menderagailuarekin batera erabiltzekoa da, eta, horrenbestez, *-(e)la*-dun osagarria hautatzen duen aditz gobernatzailea izan behar du ezkerrean. Aditza, eta ezkerrean. Izan ere, bada *ezen* bidezko perpaus osagarria aditz baten gobernupekoa izan beharrean izen baten gobernupekoa izatea zilegitzat ematea aldarrikatzen duenik.⁵ Garai batean *ezen*-en erabilera gaitzetsia eta ia erabat baztertua izateak, ordea, ez digu eskubiderik ematen lokailu edo menderagailu honi zor ez zaion lekua egitea. Mendeku handiegia litzateke. Uste dut euskal prosaren osotasuna ez dela asmakerietatik etorriko. Hizkuntza bakoitzak bere bideak ditu, baita birsortzeko edo birjaiotzeko ere, baina hau ez.

Eta behin perpaus osagarriez ari garela, bada beste arazo (?) bat, oso gutxitan aipatzen dena. Osagarritzat perpausa har dezaketen izenak aipatu ditugu arestian. Euskaldun askoren aburuz, ordea, osagarria galderazkoa deanean onartezinak gertatzen dira egitura hauek. (ik. Euskaltzaindia 1999: 153-155). Hona hemen, hala ere, *Martuteneko* adibide hau:

- (12) Martinek (...) esku bat pausatu du Juliarenaren gainean esaterakoan, irribarretsu, edonola ere bizi litekeela zer ote den lehendabizi, esnea ala tea zalantzarekin, ... (M 32)

Galderazko osagarriarenaz gainera, perpaus honek badu beste arazo bat ere, lan honetan hizpide izan dugun osagai-hurrenkerarekin zerikusia duena, perpaus osagarriko adizkia ez baita perpausaren muturrean ageri *-[zer ote den lehendabizi, esnea ala tea] zalantzarekin*, eta benetan, bitxia gertatzen da. Euskaldunok holako egituren aurrean geure zalantzak baditugu ere, Eus-

⁵ *Ezen* bidezko perpaus osagarriak aditz baten gobernupekoa da, ez izen batena, adibidez. Horregatik, biziki harrigarri egiten da, euskara batuaren bigarren jaiotza (Amuriza 2010) aldarrikatuz *ezenen* erabilera-esparrua zabaltzeko egiten den zenbait proposamen (Amuriza 2012: 116-125). Adibide gisa, honako hau eskaintzen digu bertsolariak:

(i) Margolariak ez zuen gure interpretazioa gaitzitu, baldintzagaz ezen «On Kixote buonarrotiar bat» ikus genezan. (118 or.)

Holako proposamenekin ez dakit zer konpondu nahi den: ‘con la condición de que viéramos xx’ itzultzeko moduak badira, baina hori ez da.

kaltzaindiaren gramatikak aitortzen duen bezala, (9)ko esaldia euskaldun guxtik onetsiko lukete, idatzian behintzat. Ulertu ere, nekez.

3. Ariketa bat, ordena ezarri nahian

Hemen harrotu ditugun arazo(txo)ak, funtsean, hitz ordenari eta puntuazio ikurrei dagozkie. Orain arte liburuan zehar han-hemenka jaso ditugun adibideez gainera, askoz gehiago ere jar litezke, baina pare batekin konformatuko gara. Ezkerrean, jatorrizko testu zatia emango da bere horretan. Eskuinaldean, berriz, ordain egokiagoa (ez, beharbada, egokiena) emateko saio bat egingo da. Proposatzen diren aldaketak hitz ordenari, puntuazioari eta perpausak eta hauen osagaiak zedarritzeari dagozkio. Zenbaki bidez eta azpimarraz ematen da aldaketen berri. Nolabaiteko ariketa gisa eskaintzen ditut adibideok, aurreko lerroetan esandakoak egiaztatzeko edo. Obra bikainek, puntu eztabaidagarriak edo, nahi bada, akatsak edo desegokitasunak izan arren, hizkuntzaren bideak zabaltzen lagun diezagukete. Honek gramatikari batentzat badu garrantzia, zeren nobela eder bat irakurgai hartzen denean, gozatzeko hartzen da, ez akatsak bilatzeko, baina irakurketan oztoporik izan ez balitz, ez genukeen orain ariketa hau egiten jardungo. Oztopoetatik ere ondorio baliotsuak atera daitezke. Gramatikariak ere atera ditzake.

Hona hemen goian iragarritako adibide pareak:

- (13) a. Baina kezka ez du funtsik. Uste osoa duela₁ hegazkinean Harrodseko poltsa emanez patua baldintzatu zion emakumeak berea ere erabaki zuela hagitz ekintza simple harekin esan dio₂ isilune luze baten ondoren₃ eta lasaitua hartu Abaituak₄ gaizki pentsatu izanaren errudun sentimendua datorkio atzera. Zertatik ateratzen duen uste hori₅ galdetuta₆ bihozkada bat dela erantzun du. Atzenekoz begiztatu zuenean₇ larri zegoela iruditu omen zitzaion. Halaxe dio₈ eta₈ bera aringailua zanpaka₉ tontakeriak esateari utzita₁₀ joan dadin. (84 or.)
- b. *Baina kezka ez du funtsik. Isilune luze baten ondoren₃ esandio₂ uste osoa duela₁ hegazkinean Harrodseko poltsa emanez patua baldintzatu zion emakumeak berea ere erabaki zuela hagitz ekintza simple harekin, eta lasaitua hartu (du) Abaituak₄. Baina₄ gaizki pentsatu izanaren errudun sentimendua datorkio atzera. Uste hori₅ zertatik ateratzen duen galdetuta₆ bihozkada bat dela erantzun du. Atzenekoz begiztatu zuenean₇ larri zegoela iruditu omen zitzaion. Halaxe dio₈. Eta₈ bera aringailua zanpaka₉ tontakeriak esateari utzita₁₀ joan dadin.*

- (14) a. Edanezina da kafea. Zertan ote dagoen₁ kafe bertsuak erabiliz, kolonbiarrak jeneralean, eta makina berak, italiarrak, gure tabernetan ematen duten kafeak ez duen zerikusirik Italian zerbitzatzen denarekin galdetzen dio bere buruari₂ (73. or.)
- b. *Edanezina da kafea. Bere buruari galdetzen dio₂ zertan ote dagoen, kafe bertsuak erabiliz, kolonbiarrak jeneralean, eta makina berak, italiarrak, gure tabernetan ematen duten kafeak eta Italian zerbitzatzen denak hain zerikusi gutxi izatea.*

Egileak berak aitortzen du akatsak asko direla nobelan. Edizio problema baten aurrean gaudela esango nuke.⁶ Nolanahi ere, aipatu ditugun desegokitasunek eta zailtasunek balio dezakete arazoak non daudekeen erakusteko, eta bideak, berriak nahiz ahaztuxeak geneuzkanak, nondik joan daitezkeen markatzeko, zeharka bederen. Gure ibilbidean lagun izan dugun nobela honen eta beste hainbat lan bikainek, ongi erakusten ahal digute non dauden oztopoak, non dauden oteak, non zuloak, sasiak eta sastrakak. Altube, onerako nahiz txarrerako hainbat bider aipatua izan den gure gramatikaria, zuzen zebilen honako hau idatzi zuenean:

Estas dificultades y otras análogas que se presentan a los escritores en todos los idiomas, son sorteadas y vencidas con relativa facilidad por los literatos dotados de esa perspicacia y disposición naturales, necesarias en todas las artes para suplir en cada momento lo que es imposible prever en los tratados o estudios teóricos. (Altube 1929: 21)

Ausardia handiegia litzateke, jakina, gure idazle handienei lezioak ematen hastea neure aldetik. Baina zilegi izango ahal dut, hari honi jarraituz eta nere kasa jardun beharrean, Pinker-ek bere liburu bikainean, apal-apal luzatzen digun aholkua:

Hizkuntzaren erabileran aldatzea gehien merezi duten aldeak prosa idaztaren argitasuna eta estiloa dira. Azalpenezko testuetan, bere jatorrizko diseinu biologikoan helburu zituenak baino askoz ere konplexuagoak diren pentsamendu-kateak adierazi behar ditu hizkuntzak. Epe laburreko memoria eta plangintzaren murriztapenek eraginiko hutsak, elkarrizketan ohargaitzak diren arren, ez dira horren onargarriak lasaitasun handiagorik irakurriko den orrialde batera eramaten direnean. Gainera, elkarrizketa bateko solaskideak ez bezala, irakurleak eta idazleak oso gutxitan partekatzen dute hizkuntza ulergarri egiten duen inguru komunikatiboaren ezagutza, adierazten ez diren premisak interpolatzea ahalbidetzen duena. (...) ongi idazteko giltzarri bat

⁶ Elustondoren elkarrizketan, nobelaren 'lehen irakurlea' izan omen zen Koldo Izagirri buruz hau esaten da: «Errespetu handia diot Koldori. Oso eskuzabala izan da. Ez dago ados ez nire hizkuntzarekin, ez bertan esaten diren gauza askorekin ere». Gara-ko elkarrizketan, berriz: «Eus-kara orraztu egiten digutela esan ohi dugu, baina batzuetan permanentea ere egiten digute. Koldok asko daki eta asko ikasi dut lankidetzan horretan». Esango nuke Saizarbitoriak permanentea ez duela atsegin, baina aurkeztu digun testuak behar zukeen zerbait. Dena dela, niri ere ez zait gustatu egiten bide dioten permanente hori. Ez da aski behintzat.

hutsala izanagatik ere denen ezaguna, idatzirikoa behin eta berriz berrikus-tea da. Idazle onek bitik hogeira zirriborro berridazten dituzte lan bat argitara eman aurretik... (Pinker 1994: 437).

4. Itzulpenez azken gogoetatxoa

Martutenerekin borrokan ari nintzenean ezin nuen burutik kendu nolako izango ote zen gaztelaniazko itzulpena. Euskarazkoa bezain aldapatsua izango ote da?, nioen neure artean. Liburuaren promozioa zela eta, honela mintzo zitzaigun egilea:

Ez dakit zer egin gaztelera-zko itzulpenarekin, egin edo ez egin. Eta atzerrian, noski, *Martutene*-rik gabe pasatu beharko dute. (...) Gaztelera-z irudika ditzaket irakurleak nobela hau irakurtzen, baina hortik kanpo inork ere ez. Oso arraroa beharko luke alemaniar batek nire nobela irakurri nahi izateko. (*Gara* 2012-04-15)

Baina azkenean gaztelera-zko itzulpena ere argitara da, dotore askoa, gainera. Itzulpenen aldeko naiz, eta ez gaztelaniazkoena soilik. Baina kezka bat dut honekin. Izan ere, badut errezeloa irakurle euskaldunari, eta are euskaraz irakurtzeko zaletasuna duenari, jatorrizko testua itzulpena baino zailago ez ote zaion egiten. Hala izanez gero, gerta liteke euskal irakurle potentzialak ere gaztelaniara jotzea. Ez dakit 'gaztelera-z irudika ditzakeen irakurleak' hauek diren. Dena dela, jatorrizko testua kontu eta maina handienaz tratatu beharko litzateke, itzulpena bezain ongi, gutxienez. Permanentea nahiz buru-arras moztea behar bada ere. Ezinbestekoa da hori, irakurleak irabazi nahi baditugu eta ez, uxatu. Eta hor, idazlearena da erantzukizun nagusia, eta editoreena, zuzentzaileena eta abarrena. Nire arrenkura hau adierazi gabe gelditu ezin eta oraingoan ere adibide bat jarriko dut, non euskarazko testua benetan korapilatsua den, erdal itzulpena ez bezala:

- (15) a. Txundigarria egin zaio Juliari «Bere bizitzako gaurik zoragarrienaren» kontakizuna Sagastizabal existitzen den egiaztapenarekin hastea, jakinarazteko ume bat izan duela bere lehen-gusu etxejaun berriak antza denez Argi izena duen perutar txikiarekin, eta umeari Peru jarriko diotela izena, suposatzen du nahasmendu horregatik ez dela garaiz konturatu, Lynnek nahiko lukeen bezala, zeinen «zoragarria eta magical» den izenaren adiera bikoitza... (*M* 573)
- b. *Le resulta desconcertante a Julia que el relato de la noche más extraordinaria de su vida empieza con la confirmación de que Sagastizabal existe y la noticia de que su joven primo, el nuevo «etxeko-jaun» y su peruanita, que por lo visto se llama Argi, hayan tenido un crío al que llamarán Peru, y es por ese desconcierto, supone, por lo que no acierta a reparar a tiempo, como sin duda le habría gustado a Lynn, en lo «maravillosa» que resulta la doble acepción del nombre.*

Adibide honen jarraian datorren esaldi luzea ere bihurria eta ulergaitza egiten da.

5. Ondorio gisa

Gozamen hutsez irakurri gogo nuen *Martutene*. Baina gozoa nahi nuen irakurketa horrek eraman nau niretzat gozoa den euskal gramatikaren arlo batez ere gogoeta egitera, perpaus atalen hurrenkeraz eta osagaien artean kokatu behar/ahal diren puntuazio ikurrez hain zuzen. Denak ere, itxuraz gai xumeak izan arren, tentu handiz eta patxadaz tratatu beharreko gaiak. Lantxo honen asmoa ez zen akats bila aritzea, baizik eta irakurketan aurkitutako zailtasunen arrazoia bilatzea. Eta honekin lotuta, bere buruari ezarritako erronkari idazleak nola erantzun dion aztertzea, testuaren irakurgaitzasuna zeri zor zaion jakite aldera. Zehar-estiloan leku berezia duten perpaus osagarrietan ezarri ditugu begiak, eta idazleak eskaintzen dituen zenbait irtenbide aztertu ditugu, batzuk egokiak, beste batzuk arazotsuagoak. Baina horrek esan nahi duena da hizkuntza landu egin behar dela eta eginkizun horretan ari direnen artean lankidetzat sustatu. Euskaraz gaur adina idazle eta lan ez da sekula izan. Horien arrimura, badira hor zehar estilo liburuak, estilo zuzenari buruzko proposamenak eta saiakerak, badira gramatikak, lehengoak eta oraingoak, tesiak, era askotako ikerlanak, hiztegiak, corpusak... Gaur arte sekula izan ez ditugun tresnak ditugu eskura, eztabaidagai eta ikasgai. Horiek behar bezala baliatu dituzkegu, modu kritikoa aztertuz, euskal prosa aberatsagoa, adierazkorragoa eta unean uneko premiei egokituagoa gauzatu joateko. Erronka ikaragarria. Hizkuntza aztergai dutenei (gramatikari, irakasle, hiztegi-gile...) egiten den euskarari adi egotea eskatu behar zaie. Idazleei, itzultzaileei eta abarrei ere, hizkuntzaren ezagutza egokia eta ahalik eta sakonena eska dakieke. Euskararen etxea eraikitzea euskaldun guztion eginkizuna da, azken batean.

Aipamenak

- Alberdi, Xabier & Ibon Sarasola. 2001. *Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia*. Bilbo: UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- Altube, Seber. 1929. *Erderismos*. Bermeo: Gaubeka. [2. Argit. 1975. Bilbo: Indautxu]
- Amuriza, Xabier, 2010. *Osoa, lehiakorra, nazionala. Euskara batuaren bigarren jaiotza*. Oiartzun: Lanku.
- Amuriza, Xabier. 2012. *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako*. Andoain: Lanku.
- Artiagoitia, Xabier & Joseba A. Lakarra (arg.). 2008. *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez. ASJUren Gehigarriak*. Bilbo: UPV/EHU.
- Elustondo, Miel A. 2012. «Ramon Saizarbitoria: 'Orain bai, nobela bat egingo nukeela uste dut» *Administrazioa euskaraz* 77, 7-11.

- Euskaltzaindia. 1999. *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak-1)*, Bilbo.
- Fernández, Beatriz & Jon Ortiz de Urbina. 2007. *Hizkuntzari itzulia 80 hizkuntzatan*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Garzia, Juan. 1997. *Joskera lantegi*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua.
- Garzia, Juan. 2014. «Puntuazioaren oinarriko arauak (1): esaldien artekoak. *Administrazioa euskaraz* 83, 15-16.
- Hidalgo, Bittor. 2002. «Hitzen ordena esaldian». *Senez* 25.
- Makazaga, Jesus Mari. 2008. «Ahozko jarduna komunikazioaren lagungarri: ekarpen bat ahozkoaren estrategia komunikatiboez». In X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.). 545-560.
- Mitxelena, Koldo. 1978. «Miscelánea filológica vasca I». *Fontes Linguae Vasconum* X, 205-228.
- Mitxelena, Koldo. 1981. «Galdegaia eta mintzagaia euskaraz». *Euskal Linguistika eta literatura*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. 57-81. [Berrarg.: *Sobre historia de la lengua vasca. ASJUren Gehigarriak*. Donostia. 656-673.]
- Pinker, Steven. 1994. *The Language Instinct. How the Mind Creates Language*. [Euskal itzulpena: Garikoitz Knörr. 2010. *Hizkuntza-sena*. Bilbo: Ehupress.]
- Saizarbitoria, Ramon. 2012. *Martutene*. Donostia: Erein. [Gaztelerazko itzulpena, egileak berrikusia: Madalen Saizarbitoria. 2013. *Martutene*. Donostia: Erein.]